



AYUNTAMIENTO DE
ABANTO Y CIERVANA

ABANTO-ZIERBENAKO
UDALA



ABANTO-ZIERBENAKO UDALA
AYTO DE ABANTO-ZIERBENA

11 DIC 2009

DECRETO ALCALDIA
ALCATETZA DEZBETZUA ZRIA

FR

Gaur, Alkatzetak honako dekretua eman du; honakoa dio, hitzez hitz:

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 45. artikuluan berariaz adierazitakoaren arabera, administrazio guztiek sustatu beharko litzukete jarduerak garatu eta eskumenetaz baliatu ahal izateko beharrezkoak diren teknika eta baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera eta abian jartzea; betiere, Konstituzioak eta legeak baliabide horiek erabiltzeko jartzen dituzten mugak kontuan izanik. Betebehar orokor honek Toki Administrazioa osatzen duten Erakundeak ere barne hartzen ditu.

Beranduago, Tokiko Gobernua Berritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen aldaketa nabarmena eragin zuen 70 bis artikuluko 3. atalean hurrengo gehituz: tokiko erakundeek, eta bereziki udalerriek, informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera interaktiboa sustatu behar dutela herritarrekin parte hartzea eta komunikazioa errazteko, dokumentuak aurkezteko eta izapide administratiboak, inkestak edota herritarrei kontsultak egiteko. Horrez gain, diputazio probintziales, kabildoek eta irletako kontseiluek laguntza emango diete ekonomia edo kudeaketa arloetan gaitasun nahikoa ez izateagatik atal honetan ezarritako betebeharrak bete ezin dituzten udalerriei.

Azkenik, herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezarritakoaren arabera, beste zenbait gairen artean, egin beharreko lehenengoetariko betebeharra harremanak eratzeko «egoitza» administratibo elektronikoa argi eta garbi zehaztea da, identifikazioaren, egiaztapenaren, gutxieneko edukiaren, babes juridikoaren, irisgarritasunaren, erabilgarritasunaren, neutraltasunaren eta elkarrekiko eraginkortasunaren arloetako erregimena bultzatuz.

Aipatutako Legearen 10.3 artikulua adierazten duen bezala, administrazio bakoitzak beraien egoitza elektronikoaren sorkuntzarako baliabideak zehaztuko ditu, publikitate ofizialaren, erantzukizunaren, kalitatearen, segurtasunaren, erabilgarritasunaren, irisgarritasunaren,

En el día de la fecha la Alcaldía ha dictado el presente Decreto que literalmente se transcribe:

La Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en su artículo 45, expresó de modo explícito el impulso que todas las administraciones debían realizar en el empleo y aplicación de las técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos, necesarios para el desarrollo de su actividad y el ejercicio de sus competencias, respetando en todo caso, las limitaciones que en la utilización de estos medios establecen la Constitución y las Leyes. Dentro de esta obligación general, debía entenderse contenidas las Entidades que integran la Administración Local.

Posteriormente, la Ley 57/2003 de 16 de diciembre, de Medidas para la Modernización del Gobierno Local, efectuó un cambio sustancial en la Ley 7/1985, de 2 abril Reguladora de las Bases del Régimen Local, al añadir en el artículo 70 bis, en su apartado 3, que las entidades locales y, especialmente, los municipios, deberán impulsar la utilización interactiva de las tecnologías de la información y la comunicación para facilitar la participación y la comunicación con los vecinos, para la presentación de documentos y para la realización de trámites administrativos, de encuestas y, en su caso, de consultas ciudadanas. Añadiendo que las Diputaciones provinciales, Cabildos y Consejos insulares colaborarán con los municipios que, por su insuficiente capacidad económica y de gestión, no puedan desarrollar en grado suficiente el deber establecido en este apartado.

Finalmente, la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de la ciudadanía a los Servicios Públicos establece, entre otros aspectos, y como una de las primeras obligaciones, la necesidad de definir claramente la «sede» administrativa electrónica con la que se establecerán las relaciones, promoviendo un régimen de identificación, autenticación, contenido mínimo, protección jurídica, accesibilidad, disponibilidad y responsabilidad.

Tal y como expresa el artículo 10.3 de la antedicha Ley, cada Administración determinará los instrumentos de creación de las sedes electrónicas, con sujeción a los principios de publicidad oficial, responsabilidad, calidad



AYUNTAMIENTO DE
ABANTO Y CIERVANA
—
ABANTO-ZIERBENAKO
UDALA

neutralitatearen eta elkarrekiko eraginkortasunaren printzipioak kontuan izanez.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, eta esandako legeek herritarren eta administrazioaren arteko harremana eratzeko eta bermatzeko sustapenaren aldeko joera ezarri dutenez gero, eta errealitate berri honetara egokitzeko eta moldatzeko Bizkaiko lurralde historikoko Foru Aldundiak udaletxeei eskaintzen dieten laguntza kontuan izanez, baldintza eta betebeharra dugu herritarrekin harremanak izateko udal markoa zehaztea; beraz,

Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 124.4 g) artikuluan eman zaizkidan eskumenen babesean,

publicidad oficial, responsabilidad, calidad, seguridad, disponibilidad, accesibilidad, neutralidad e interoperabilidad

Por todo lo anterior, y dado el impulso establecido por la antedicha legislación con el fin de propulsar el establecimiento y el afianzamiento de las relaciones de la ciudadanía con la administración, y dado, el apoyo que ofrece la Diputación Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, a los ayuntamientos para que se adecuen y se adapten a esta nueva realidad, es requisito y obligación determinar el marco municipal de relaciones electrónicas con la ciudadanía, por tanto,

En uso de las atribuciones que tengo conferidas por el artículo. 124.4 g) de la Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Abanto-Zierbenako Udalak, agindu honetan berari dagokion zatia betetzeko, bere egoitza elektronikoa **www.abanto-zierbena.org** dela zehazten du, eta horren bidez herritarrek informazio elektronikoro orokorra eskuragarri izango dutela, baita norberaren informaziorako zerbitzuak, biztanleen arreta zerbitzua, zerga-bulego birtuala, hirigintza kudeaketa eta beste udal webguneetarako loturak.

Bigarrena.- Aldi berean, **Abanto-Zierbenako Udaletxeko Erregistro Elektronikoa** sortuko da 11/2007 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera. Helburu horretarako, Idazkari Saia bere kudeaketaren arduraduna izango dela zehazten da.

Erregistro telematikoko hori ondorio guztietarako integratuko da korporazioaren Erregistro orokorrean eta herritarrentzat borondatezkoa izango da, erregistro honen bidez egindako eskaeren, idazkien edo jakinarazpenen aurkezpenak arautzen dituen etorkizuneko prozedura telematikoen sorrerarako arauak edo indarrean dagoen legeriak ezarritako derrigorrezko erabilera kasuetan izan ezik.

Erregistro telematikora sartzeko aukera eguneko 24 orduetan zehar izango dute, urteko edozein egunetan. Sarrera eta/edo irteera data eta ordua

RESUELVO

Primero.- El Ayuntamiento de Abanto-Zierbena, para dar cumplimiento en su parte correspondiente a este mandato, establece que su sede electrónica es **www.abanto-zierbena.org**, a través de la cual la ciudadanía puede acceder a la información electrónica general y a los servicios de información particular, servicio de atención a la ciudadanía, Oficina virtual tributaria, Gestión urbanística, así como a enlaces con otras webs municipales.

Segundo.- De forma paralela, se crea el **Registro Electrónico del Ayuntamiento de Abanto-Zierbena**, conforme al artículo 25 de la Ley 11/2007. A tal efecto se indica que el Departamento de Secretaría será responsable de su gestión.

Este Registro telemático se integrará a todos los efectos en el Registro general de la corporación y tendrá carácter voluntario para la ciudadanía, excepto los supuestos de utilización obligatoria establecidos por ley o por las normas de creación de futuros procedimientos telemáticos en que se regule la presentación de solicitudes, escritos o comunicaciones a través del registro mencionado.

El acceso al Registro telemático será posible durante las 24 horas del día, todos los días del año. La fecha de entrada y/o de salida se



AYUNTAMIENTO DE
ABANTO Y CIERVANA
—
ABANTO-ZIERBENAKO
UDALA

jasotzen dituen zerbitzu elektronikoen baten bidez gordeko dira. Epeak bete diren ala ez erabakitzeke, laneguna ez denean jasotako dokumentuak hurrengo lanegunean jaso balira bezala erabiliko dira. Erregistro telematikoa data eta ordu ofiziala jarraituko ditu.

Erregistro telematikoa bidez aurkeztutako eskaera, idazki edo jakinarazpenek indarrean dagoen legeriak onartzen dituen beste baliabideen bidez aurkeztutako dokumentuek dituzten ondorio berak izango dituzte.

Erregistro telematikoa ez ditu egoitza elektronikoen zehaztutako ereduak jarraitzen ez dituzten eskaerak, idazkiak edo jakinarazpenak onartuko. Era berean, Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera Udaletxeak ezartzen dituen identifikaziorako eta biztanleen akreditaziorako mekanismoak betetzen ez badira, Erregistro telematikoa ez ditu eskaerak, idazkiak edo jakinarazpenak onartuko.

Erregistro telematikoa dokumentu bat igorriko du automatikoki, eta bertan aurkeztutako idazkiaren, eskaeraren edo jakinarazpenaren baimendutako kopia bat agertuko da, baita aurkeztutako beste dokumentuen kopia ere, eta horrekin batera aurkeztuaren data eta ordua eta erregistroko sarrera zenbakia adieraziko dira.

Arrazoi teknikoaren ondorioz erregistroa ezin izango dela erabili aurreikusten bada, erabiltzaileei ahalik eta arinen jakinaraziko zaie egoerak horrela jarraitzen duen bitartean.

Biztanleek hurrengo izapideak bideratzeko aukera izango dute Interneteko egoitza elektronikoa bidez Administrazioarekin harremanetan jarri: oin berriko eraikinen lehen erabilerako lizentzia, distantzia ziurtagiriak, hirigintza gaietako informazioa, erroldan alta ematea, erroldako datuen aldaketa, atzeritarren errolda berriztatzea, errolda edo egoitza txartela, errolda ziurtagiriak, ziurtagiri bereziak, erroldan ofiziozko baja emateko eskaera, banku helbideratzeak, eskari orokorraren eskaera, dokumentuak ematea, kexak, iradokizunak, eskerrak eta hitzorduak.

Hirugarrena.- Azkenik, lege edo arauen xedapenaren arabera udal ediktuen taulan argitaratu behar diren egintza edo jakinarazpenak, nahi izanez gero ediktu taula elektronikoa ere edo taula elektronikoa soilik argitaratu ahal izango dira.

acreditará mediante un servicio de consignación electrónica de fecha y hora. A los efectos del cómputo de plazos, la recepción de documentos en un día inhábil se entenderá efectuada el primer día hábil siguiente. El Registro telemático se registrará por la fecha y la hora oficiales.

La presentación de solicitudes, escritos o comunicaciones al Registro telemático tendrá los mismos efectos que la presentación efectuada por el resto de medios admitidos por la legislación vigente.

El Registro telemático no admitirá la presentación de solicitudes, escritos o comunicaciones que no sigan los modelos descritos en la sede electrónica o no cumplan todos los mecanismos de identificación y de acreditación de la voluntad de la ciudadanía que fije el Ayuntamiento de conformidad con las previsiones de este Decreto.

El Registro telemático emitirá automáticamente un recibo consistente en una copia autenticada del escrito, solicitud o comunicación presentados, así como de los documentos presentados, que comprenderá la fecha y la hora de presentación y el número de entrada en el registro.

Quando, por razones técnicas, se pueda prever que el registro no podrá estar operativo, deberá anunciarse a las personas con la máxima antelación posible y mientras dure esta situación.

La ciudadanía podrá comunicarse con la Administración mediante acceso a la sede electrónica en Internet para la tramitación de los procedimientos de Licencia de primera utilización de edificación de nueva planta, Certificados de distancia, Información Urbanística, Alta en padrón, Modificación de datos de Padrón, Renovación Padrón de Extranjeros, Volante de padrón / residencia, Certificados de Empadronamiento, Certificados especiales, Solicitud de baja (de oficio) de Padrón, Domiciliaciones Bancarias, Solicitud de instancia general, Aportación de Documentación, Quejas, Sugerencias y Agradecimientos y Citas.

Tercero.- Por último, se establece que la publicación de actos y comunicaciones que, por disposición legal o reglamentaria, deban publicarse en el tablón de edictos municipal, podrá ser sustituida o complementada por su publicación en el tablón de edictos electrónico.



AYUNTAMIENTO DE
ABANTO Y CIERVANA
—
ABANTO-ZIERBENAKO
UDALA

Herritarrek ez dute beraien nortasuna egiaztatzeko mekanismorik behar izango ediktu taula elektronikora sartzeko.

Ediktu taula elektronikoa Udalaren egoitza elektronikoa argitaratuko da. Ediktu taula elektronikoa edukien egiazkotasuna, integritatea eta erabilgarritasuna bermatzen dituzten sistema eta mekanismoak izango ditu legeriak aurreikusten dituen baldintzen arabera.

Dagozkien epeak neurtzeko, ediktuen argitalpen dataren eta orduaren adierazpena bermatzen dituen mekanismo bat ezarriko da.

Udal egoitzaren bidez ediktu taula elektronikoa ikusteko aukera izango dute eguneko 24 orduetan zehar, urteko egun guztietan. Arrazoi teknikoek ondorioz ediktu taula elektronikoa ezin izango dela erabili aurreikusten bada, ahalik eta arinen jakinaraziko zaie erabiltzaileei, eta taula kontsultatzeko dituzten beste baliabideak adieraziko zaizkie.

Ebazpen honen testu osoa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 58 eta 59. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera jakinaraziko zaie interesdunei.

Alkateak agindu eta sinatu du, Abanto-Zierbenako udaletxean, erregistro-kutxatxoan adierazitako egunean.

Horixe jakinarazi dizut, jakin dezazun eta ondore egokiak izan distan.

El acceso por parte de la ciudadanía al tablón de edictos electrónico no requerirá ningún mecanismo especial de acreditación de la identidad de la persona.

El tablón de edictos electrónico se publicará en la sede electrónica del Ayuntamiento. El tablón de edictos electrónico dispondrá de los sistemas y mecanismos que garanticen la autenticidad, la integridad y la disponibilidad del contenido, en los términos previstos en las leyes.

En especial, a los efectos del cómputo de los plazos que corresponda, se establecerá el mecanismo que garantice la constatación de la fecha y la hora de la publicación de los edictos.

El tablón de edictos electrónico estará disponible todos los días del año y durante las veinticuatro horas del día, a través de la sede municipal. En previsión de que el tablón de edictos electrónico no se encuentre operativo por razones técnicas, dicha circunstancia se, anunciará a los usuarios y usuarias con la máxima antelación posible, y se les indicarán los medios alternativos de consulta del tablero que estén disponibles.

El texto íntegro de la presente resolución se notificará en forma a los interesados, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 58 y 59 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Lo manda y firma el Sr. Alcalde en la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Abanto-Zierbena en la fecha señalada en el cajetín de inscripción.

Lo que le comunico a usted para su conocimiento y a los efectos oportunos.

IDAZKARI NAGUSIA / LA SECRETARIO GENERAL
ELENÁ ROBLES RURETAGOIENA

